

Zierbena (Bizkaia), 2008ko martxoaren 10ean

Ziklo konbinatuko lantegiak izan duen erabilera-ratioa %60koa izan da

Bahía de Bizkaia Electricidad enpresak Euskadiko etxebizitzetako kontsumo guztia 1,5 aldiz estaltzeko energia ekoitzi du 2007an

Bahía de Bizkaia Electricidad (BBE) enpresak Euskadiko etxebizitzetako kontsumo guztia 1,5 aldiz estaltzeko elektrizitatea ekoitzi du, eta urtean 2.800 GWh ingurukoa da. 2007ko ekitaldian BBE enpresak %60,26ko erabilera-ratioa izan zuen –2006aren parekoa-, eta guztira 4.135 GWh ekoitzi zituen. Era horretan, Espainia osoko sistema elektrikoaren ziklo konbinatu garrantzitsuenetako bat bezala mantentzen da BBE, eta gainera, Euskadira eta Espainiako gainerako lekuetara elektrizitatea hornitzeko segurtasun-berme garrantzitsua da.

800 MWko potentzia instalatua duen ziklo konbinatuko lantegi bat da BBE eta bere turbinetan gas naturala erreta funtzionatzen du; gas hori Bahía de Bizkaia Gas izeneko birgasifikazio-lantegian deskargatzen da. Horrela, aipatu ekoizpen hori 2007an 1,471 milioi metro kubiko gas natural likidotu deskargatu izateari esker lortu da. Guztira 11 metano-ontzi izan dira BBE gas naturalaren kontratuak betetz Bilboko Porturaino GNL garraiatzen aritu direnak.

Bahía de Bizkaia lau bazkidek osatzen dute: BP, Energiaren Euskal Erakundea (EVE), Iberdrola eta Repsol YPF, bakoitzak %25eko partaidetza izanik. BBG eta BBE proiektuaren inbertsioa guztira 600 milioi euro ingurukoa da. Bahía de Bizkaia osatzen duten lau bazkideak oso ezagunak dira energiaren sektorean. BP munduko konpainiarik handienetakoa da energia eta kimika arloko jardueretan; EVE euskal energiaren politikaren garapenerako Eusko Jaurlaritzak duen Erakunde publikoa da; Iberdrola Espainiako bi konpainia elektriko garrantzitsuenen artean dago eta Repsol YPF Espainiako sozietate nagusia da petrolio alorrean.

	Dekargatutako metano-ontzi kop.	Miliokia m ³ GNL	Ekoizpena GW/h-tan	Lantegiaren erabilera %tan
2003	4	0,37	1.865	28,60%
2004*	26*	1,77	3.745	54,44%
2005*	38**	1,74	4.119	60,01%
2006	14	1,85	4.352	63,41%
2007	11	1,471	4.135	60,26%

* 26 metano-ontzi horietako karga bi erabiltzaileen artean banatu zen eta 13 ontziren parekoa izango litzateke.

** 38 metano-ontzi horietako karga hiru erabiltzaileen artean banatu zen eta 13 ontziren parekoa izango litzateke.